# SARAUBE BERRIAK

Aiarako Udalaren aldizkaria #100
2020ko MARTXOA / MARZO



# Todo preparado para reivindicar la Igualdad el 8 de Marzo

El Ayuntamiento de Ayala y el Foro por la Igualdad, Aiara Berdintasunaren Alde, han organizado una intensa programación para el 8 de Marzo, Día Internacional de la Mujer.

Ese día partirá una marcha montañera a las 09:30 desde Luiaondo camino a Respaldiza, a donde llegará a las 11:30. Hasta las 13:00, hora en la que comenzará la concentración, desayunarán y colocarán fotografías de mujeres mayores de la localidad, en representación de todas.

A las 14:00 tendrá lugar la comida en el restaurante Oleta. Más tarde, a las 16:00, el cineforum ofrecerá la película "Figuras ocultas" en el Centro Social Otueta. Posteriormente se llevará a cabo un coloquio. Finalmente, acudirán en coche a la movilización comarcal prevista en Amurrio a las 19:30.

*Mendi ibilaldiarekin hasiko da Martxoak 8 Luiaondon. Arespalditzara 11:30ean helduko dira, eta gosaldu ostean, Feriala apainduko dute 13:00etan egingo den elkarretaratzerako. 14:00etan bazkaria egongo da Oletan eta zineforuma 16:00etan. Azkenik, Amurrioko mobilizaziora joko dute 19:30ean*

## Liburua Aiarako emakumeei buruz

Martxoaren 5ean "Aztarnak, memoria eta errealitateak" liburuaren proiektua aurkeztuko dute 18:00etan Emakumeen Gelan. Berez, aurreko urteetan egindako lanari jarraipena emateko, asmoa da Inma Roizek testua idaztea Aiarako emakumeen inguruan; euren ekarpenei eta aztarnei ikusgarritasuna eskaintzeko. Udalerriko aniztasuna jaso nahi dute bertan eta horretarako banakako eta taldekako elkarrizketak egin dira. Aurkezpenean azalduko dute nola gauzatuko den egitasmoa eta jendea animatuko dute parte har dezan.

## Actividades por la Igualdad

Además de los actos que se lleven a cabo el 8 de Marzo, habrá otras iniciativas en las que participar. El 5 de marzo, por ejemplo, presentarán el proyecto de libro sobre las mujeres de Ayala. Será a las 18:00 en Emakumeen Gela. El 12 en la Ludoteka de Luiaondo Maitena Monroy ofrecerá una charla sobre autodefensa feminista a las 18:00. El 14 será la presentación del libro "Mujeres que alzaron la voz" en Menagarai a las 17:00 y al día siguiente la Marcha por la Igualdad.

## Ekintza gehiago 12an eta 14an

Martxoaren 12an, 14an eta 15ean berdintasunari lotutako jarduera gehiago antolatu dituzte.12an, osteguna, 18:00etan "Autodefentsa feminista" hitzaldia egingo da Luiaondoko Ludotekan Maitena Monroyren eskutik. Martxoaren 14an "Mujeres que alzaron la voz" liburua aurkeztuko dute Menagaraiko eskoletan 17:00etan, herriko emakume taldeak antolatuta. Martxoaren 15ean Berdintasunaren Aldeko Martxaren ordua helduko da. 10:00etan hasiko da Amurrion eta Laudion, eta 12:00etan izango da hamaiketakoa Luiaondon.

# “Gelditu Geltokian”, una campaña por el consumo responsable del alcohol



El Ayuntamiento de Ayala se ha sumado a la iniciativa “Gelditu Geltokian”, en la que confluye con otros nueve consistorios -Amurrio, Laudio, Orduña, Ugao, Arrankudiaga-Zollo, Arakaldo, Arrigorriaga, Basauri y Bilbo- que poseen paradas del servicio de Cercanías de Renfe en la línea C-3.

### Consumo de alcohol

El objetivo principal de esta campaña es impulsar el consumo responsable de alcohol. De hecho, durante las fiestas populares y en determinados conciertos es habitual que numerosas personas jóvenes recurran al tren y viajen portando bolsas con bebidas alcohólicas. En esos contextos, “Gelditu Geltokian” va a ofrecer información sobre cuándo se debe interrumpir la ingesta de alcohol, con el propósito de evitar consecuencias indeseables posteriormente. Para ello van a recurrir a carteles, panfletos que replican los horarios de trenes y vídeos que se mostrarán en las máquinas de expedir billetes. Por otra parte, la iniciativa va a destacar también la importancia de recurrir al transporte público en lugar de al privado, con el fin de prevenir accidentes o posibles sanciones viarias.

*Aiarako Udalak bat egin du “Gelditu Geltokian” ekimenarekin, C-3 Renfeko linean dauden beste 9 udalerrirekin: Laudio, Amurrio, Urduña, Basauri, Arrigorriaga, Ugao, Arakaldo, Arrankudiaga-Zollo eta Bilbo, hain zuzen ere. Kanpaina horren asmoa da alkoholaren kontsumo arduratsua sustatzea gazteen artean. Izan ere, maiz jaietara edo kontzertuetara joateko garraio zerbitzu hori baliatzen baitu gazteriak eta arrunta da eurekin botilak eramatea. Gauzak horrela, alkohola edateari noiz utzi gomendatuko die ekimenak arazoak ekiditeko, bai kartelen, zein ikus-entzunezkoen eta ordutegi itxurako panfletoen bidez. Berez, “Gelditu Geltokian” jardueraren bitartez beste esparru batean ere eragin nahi dute, eta autoaren erabilera bultzatu ordez, trenarena zabaldu nahi dute. Alde batetiik, balizko istripuak prebenitzeko, eta bestetik, isunak eta zigorrak saihesteko*

# Informazio batzorde irekiak



Aiarako Udalak ekin dio arautzeari partaidetza publikoa informazio batzordeetan. Berez, araua prestatu dute, baina Arabako Lurralde Historikoko Aldizkarian argitaratu eta helegiteak jasotzeko epea bukatu arte, ez da indarrean egongo. Prozedura berri horrekin tokiko erakundeak bermatu nahi du gardentasun osoa bere jardueran, eta aiararrei eman nahi die aukera informazio batzordeetan parte hartzeko. Gauzak horrela, eztabaidak, bozketak eta datuak lortzeko mugak egongo dira bakarrik eragiten dutenean pertsonen oinarrizko eskubideetan: intimitatean eta ohorean, esaterako. Salbuespen horiek kenduta, herritarrek parada izango dute batzordeetan egoteko, toki egokian egiteko, euren hizkuntza eskubideak bermatzeko eta hitza hartzeko. Horretarako, zehazki, batzordeko presidenteari eskatu beharko dio baimena interesdunak, bilera hasi baino lehen. Gaia landu aurretik 5 minutuko hitzartzea izango du eskura, hain zuzen. Batzar arrunta bukatu bezain laster, erregu eta galderen txanda irekitzeko aukera ere egongo da. Batzar informatiboak noiz izango diren jakinaraziko da udal iragarki-taulan eta webgunean: www.aiarakoudala.eus.








# Subvenciones para asociaciones culturales y deportivas en 2020



El Ayuntamiento de Ayala ha aprobado las bases para la concesión de subvenciones por actividades culturales y deportivas. Con estas ayudas se pretende que las asociaciones hagan frente a los gastos corrientes y de inversión, así como apoyar sus proyectos y actividades abiertas. En ambos casos, optarán a una subvención del 80% de sus gastos. En un caso se concederán hasta 1.000 euros y en el otro hasta 6.000 euros. El Consistorio solicitará a los organismos beneficiados que cumplan los criterios lingüísticos necesarios para la inclusión del euskera y también los de Igualdad, con la incorporación de la perspectiva de género en forma de lenguaje e imágenes inclusivas. Para ello contarán con el asesoramiento del personal técnico.

*Aiarako Udalak aurtengo kirol eta kultura jarduerak diruz laguntzeko deialdia prestatu du. Ohiko gastuak eta inbertsioak zein proiektu eta ekintza irekiak babestuko ditu tokiko erakundeak eta hiru baldintza ezarriko dizkie elkarteei: udalaren logoa baliatzea, euskara txertatzea euren karteletan eta berdintasun irizpideak jasotzea ere. Horiek guztiak betetzeko, udal teknikariek laguntza eskainiko dute eta derrigorrezkoa izango da deituko dituzten jardunaldietan parte hartzea*

# Laburbira: zinema euskaraz, eskura



Hogeitalau Elkarteak eta Aiarako Udalak Laburbira zinema jaialdiaren edizio berria antolatu dute martxoaren 27an 19:30ean, Arespalditzako Udal Aretoan. Ekimen ibiltariak proiektatzen ditu hainbat film labur euskaraz eta aspaldi bisitatzen du udalerria.

Aurten pelikula hautatuak izan dira: “Gau beltza”, “Urak dakarrena”, “Anti”, “Tigre bat”, “Pil pil”, “Mamarro”, “Kateak”, “Jauzi bat eta prixt” eta “Harria herria”. Ohitura jarraiki, emanaldia bukatu bezain laster aukera egongo da filmeen zuzendari batekin solasaldia egiteko. Berez, Euskaltzaleen Topaguneak bultzatzen du ekintza eta Euskal Herri osoan gauzatuko da martxoaren 9tik apirilaren 8ra bitartean.

# Aiarako Biraren aurtengo edizioa Arespalditzara helduko da martxoaren 28an

Aiarako Biraren azkenaurreko etapa Arespalditzatik aterako da 16:00etan martxoaren 28an, larunbata. Berez, proba martxoaren 14an hasiko da Laudion, bertan Jon Unzaga txirrindularia omenduko baitute. Hurrengo asteburuan Artziniegatik eta Okondotik abiatuko dira kadete kategoriako kirolariak, 21ean eta 22an, hurrenez hurren. Igande horretan Arespalditzako gaina behin eta Eskinabajoko mendatea birritan igo beharko dute, beraz, Aiara oso presente egongo da. Azkenik, martxoaren 29an Amurrion izango da irteera.

*La penúltima etapa de la Aiarako Bira tendrá Respaldiza como escenario principal el 28 de marzo. El 22 de marzo buena parte de la ruta transcurrirá también por las carreteras de Ayala*








# Zuhaitz Eguna Olabezarren



2019/2020 ikastaroan "Ondare Kulturala" jorratzen ari diren Etxaurren Ikastolako gazteek, aurreko urteentan bezala, zuhaitz eguna ospatu zuten otsailaren 28an.

Kasu horretan Olabezarren kokatuta dagoen Arzako Errotaren inguruan 35 zuhaitz landatu zituzten. Jarduera kultura eta natura arloek bat egin dute. Izan ere, alde batetik errotaren historia eta erabilera ezagutu dute. Bestalde, ikasleek Murgako Industrialdeatik hain gertu dagoen txoko ezezagun horren ingurua eta ekosistema hobetu egin dute zuhaitzak landatuta.

AULAS +55

# Charlas

La Diputación Foral de Álava y el Ayuntamiento de Ayala organizarán dos charlas en las Escuelas de Llanteno dentro del programa Aulas +55, orientado a personas mayores de 55 años. La primera conferencia, "Aves de Álava", tendrá lugar el 5 de marzo a las 17:30 y la ofrecerá el fotógrafo de naturaleza Aitor Badiola. La segunda cita será el 16 de abril a la misma hora y correrá a cargo del periodista e investigador Javier Vegas, que impartirá la charla "Cuando las bodas se hacían andando. Álava antes de las carreteras".

# Agenda

## 5

### CHARLA
**Aves de Álava, de la mano de Aitor Badiola**
*Antiguas escuelas, Llanteno, 17:30*

### AURKEZPENA
**"Aiarako Emakumeak: Aztarnak, memoria eta errealitateak" proiektua**
*Emakumeen Gela, Arespalditza, 18:00*

## 8

### MARCHA MONTAÑERA
**8 de Marzo, Día Internacional de la Mujer**
*Luiaondo, 09:30*

### APAINKETA
**Aiarako emakumeen argazkiak jarriko dira**
*Feriala, Arespaldiza 11:30*

### CONCENTRACIÓN
**Día Internacional de la Mujer**
*Ferial, Respaldiza, 13:00*




### BAZKARIA
**Emakumeen bazkaria**
*Oleta Jatetxea, Luiaondo, 14:00*

### CINEFORUM
**"Figuras ocultas"**
*Centro Social Otueta, Luiaondo, 16:00*

### MANIFESTAZIOA
**Eskualdeko mobilizazioa**
*Amurrio, 19:30*

## 12

### CHARLA
**Autodefensa feminista, de la mano de Maitena Monroy**
*Ludoteca, Luiaondo, 18:00*



## 14

### AURKEZPENA
**"Mujeres que alzaron la voz" liburua**
*Eskola, Menagarai, 17:00*

## 15

### MARCHA
**III Marcha Por la Igualdad**
*Plazas de Amurrio y Laudio, 10:00*

### HAMAIKETAKOA
**Berdintasunaren aldeko III. Ibilaldian**
*Luaiondo, 12:00*



## 28

### AIARAKO BIRA
**Prueba ciclista para la categoría de cadetes**
*Respaldiza, 16:00*

***Whatsapp municipal***

***Si quieres informarte de la actualidad de Aiara, súmate a las más de 290 personas que ya están apuntadas en el número de WhatsApp 615 788 146.***